



NERE SEHASKA ORAINDIK ERE



Doinuaren sortzailea: Karlos Gimenez.

Bertso honen egilea: Joxe Miel Iztueta "Lazkao Txiki" (1926 Lazkao - 1993 Donostia, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri

Lazkao Txikik bere sehaskari hiru bertso jarri zizkion eta, bertsolaria hil ostean, "Irriz eta malkoz" liburuan argitaratu zen (1994 Auspoa).

Sorta ezagun egin dute Xabier Letek, "200 urtez bertsotan" CD bilduman (Elkarlanean, 2001) eta Kupela taldeak, "Gailurrak ikutuz" CDan (Elkarlanean, 2012).

Nere sehaska oraindik ere
gordea daukat **goguan**
neronek ere zail da esaten
zenbat maitatutzen **nuan**
bere gainean ibiltzen niñun
txoritxo baten **moduan**
karga haundirik ez nuen eta
aixa jasotzen **ninduan**.

